


# Parrandaren ostean... sagar biltzea

III Erredakzioa

**Ostiral eta larunbatean**, musika kontzertuak, parranda eta gau giroa izan zen Hernani aldean, Sagarrondotik jaialdia antolatua baitzuten. Hernaniko kaleetatik eta karpatik Urrietara eramán zuten jaiá igande goizean. Urrieta, Usurbil, Astigarraga eta Hernaniko—hau da, Sagardoaren Lurraldeko—sagardoa edateko aukera egon zen goiz parte guztian herriko plazan. Edanarekin batera, jatekoa ere izan zuten bertaraturikoeak, eta ez nolana hkoa, gainera; plazan bertan erretako zekorra jami zuten pintxoetan. Eguneko une gogoangarriena, ordea, herrien arteko kirol lehiarekin iritsi zen. Herri bekoitzeko ordezkariak aurten go ekitaldirako prestatutako zortzi probetan aritu ziren, barnean zuten guztia emanez, nahiz eta ez izan normalean herri kirolean aritzen direnak. Urrietarrak izan ziren garaileak; sagar biltzen eta garraiatzen, harri-jasotzen, txinga lasterketan, kontrabandista proban, lokotz biltzen eta sokatiran irabazi zuten. Astigarragako taldea geratu zen bigarren lekuan, ingudearekin eta gizon proban marka onenak aginda. Hirugarren lekua usurbildarrentzat izan zen, eta laugarrena, Hernanikoentzat.



III Sagarrak, sagardoa, zekor haragia eta herri kirolak izan ziren igande goizean eta eguerdian Urrietako plazan. (ari garraiatze / argitzi press)

